

Nafarroako Parlamentuko presidente Unai Hualdek NAIZ Irratiari emandako elkarrizketan, herrialdeko gaurkotasanari erreposoa eman zion, Foru Hobekuntzaren Legea erreformatzeko ponentzia martxan jartzea onartzeak zabalduko aukeren testuinguruan. Ez du herri galdeketa egitea baztertzeko. Euskararen inguruko desadostasunez ere mintzatu zen.

«Zoritxarrez, ez dago euskararen ofizialtasunaren aldeko gehiengorik»

GARA | IRUÑEA

PSN, EH Bildu, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin alderdien babesarekin, Foru Hobekuntzaren legea erreformatzeko ponentzia onartu da nafar Parlamentuan, hori eguneratzeko asmoz. Eta horrek marratzuko du Ganberaren jarduna hasi berri den legealdian. Aurrekoan, «akordio programati-koan egon arren», ez zen lortu puntu horretara iristea eta legealdi berrian hilabete gutxitan hona iristea «pauso bat da», Unai Hualderen hitzetan, NAIZ Irratiko mikrofonoan onartu zuenez.

Hemendik aurrera proposamenen fasea irekitzen da. Hala ere, Nafarroako Foru Hobekuntza legea bozkatzea ere aurreikusten du. Izan ere, lau hamarkada baino gehiago igaro dira eta, Hualderen ustez, orduko Nafarroaren eta egungoaren artean alde nabarmenak daude: «1982an onartu zenean indar batzuen garaiko Nafarroa irudikatzen zuen eta beste herritar batzuk kanpo geratu ziren. Ez zen galdeketa egin, ez zen erreferendurik egin, nahiz eta Nafarroako legerik garrantzitsuenak izan».

Horren aurrean, «eztabaida hori» eta «Foru Hobekuntza integratzaileago bat» aldarrikatzen ditu Parlamentuko presidentek. «Nafarroako aniztasuna hobeto irudikatzen duen lege bat egiten saiatu behar gara, eta, zergatik ez, galdeketa egiten», esan zuen.

Euskara Hualdek gogora ekarri zuen 1982an gertatu zena; orduan nafar Gobernuak euskara Nafarroa osoan ofiziala izatearen aldeko jarrera zuen eta Hobekuntzan sartzea erabaki zuen. Baina gero Madrilera eraman eta pauso hura ez zen gauzatu. Orain «eztabaida» izango dela esan arren, Parlamentuko presidentek onartzen du «zoritxarrez ez dagoela gehiengo bat ofizialtasun hori lortzeko».

Hala ere, «aurrerapausoak» izan daitezkeela uste du: «Adibidez, administrazioan euska-

GALDEKETA

«Amejoramendua onartu zenean indar batzuen garaiko Nafarroa irudikatzen zuen. Aniztasuna hobeto irudikatzen duen lege bat egiten saiatu behar gara, eta, zergatik ez, galdeketa egiten»

VOX

«Ultraeskuina Parlamentuan dagoela gauza konkretuetan ikusten da. Kudeatzea ez da erraza. Argi geratzen da indarkeria matxistaren aferan»



Parlamentuan hartu zuen Hualdek NAIZ Irratia. NAIZ IRRATIA

ra meritua izatearena. Badugu nolabaiteko konpromisoa dekretua aterako dela. Honek suposatzen du eremu mistoan euskara merituz bezala baloratzea. Indarrean ez dagoen bitartean ez da baloratzen eta egoera horri amaiera eman behar zaio». Euskara iskanbila politikotik atera beharra dagoela ere nabarmendu zuen.

Federazioa eta Iruñea Bestetik, Nafarroako Udal eta Kon-

tzejuen Federazioa ere aipatu zuen, non EH Bilduko Xabier Alcuaz izango den presidente, Geroa Bairen eta PSNren bo- toak ere bereganatuta. Hualde- ren hitzetan, «Geroa Baik beti defendatu du gehiengo aurre- rakoiaren arteko akordioa» eta hori errespetatu dute kasu ho- netan ere.

«Gertatutakoa begi onez ikusten dugu, eskuinak ez go- bernatzeko alternatiba bat lor- tu delako». Hala ere, kritika

ere egin zuen. «Exekutiboa nahiko alderdikoia ikusten du- gu. Kontuan hartu behar dugu Nafarroako %55 zerrenda inde- pendentek direla eta saiatu behar gara Federazioan egon- go garen indar guztiak inde- pendente horiek egungo ku- deaketaren parte sentitzea».

Bestetik, Iruñeko Udalaren egoeraren harira, maiatzeko hauteskundeon ondoren har- tutako jarrerari eutsi zion Hualdek. Balizko zentsura mo-

zio baten inguruan galdetuta, proposamen zehatzik ez dute- la ezagutzen baieztatu zuen, baina atea zabalik utzita: «Gu- re aldetik ulertzen dugu gehiengo aurrerakoi eta asko- tarikoak batzeko aukera da- goenean saiatu beharra dagoe- la. Eta Iruñea Nafarroako hiriburua da. Geroa Baik ez zuen ulertu Iruñeko Udalean gertatu zena, bazegoelako ba- tzeko aukera. Saiakera horie- tan egongo gara».